

**Vitoria-Gasteizko Udalean
50 milioi pezetatik gorako
lanen kontratazioa**

**Contratación de obras superiores
a 50 millones de pesetas en el
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz**

1997

Vitoria-Gasteiz, 1999ko irailak 24

Vitoria-Gasteiz, 24 de septiembre de 1999



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



AURKIBIDEA/ÍNDICE

I. SARRERA ETA LANAREN NORAINOKOA	3
II. ONDORIOAK.....	5
II.1 Espedientea bideratzeko fasea	5
II.2 Egitarapen fasea	5
II.3 Espedientea amaitzeko aldia	5
III. BESTELAKO HUTSAK.....	6
III.1 Espedientea bideratzeko fasea.....	6
III.2 Esleipenaren fasea.....	6
III.3 Egitarapen fasea.....	7
III.4 Espedientearen amaiera fasea	7
III.5 Beste batzuk.....	8
IV. OBRAK EGITERA EPEAREN GAINEKO AZTERKETA BERARIAZKOA	9
V. HUTSEN LABURPENA	12
I. INTRODUCCIÓN Y ALCANCE DEL TRABAJO	14
II. CONCLUSIONES	16
II.1 Fase de tramitación del expediente.....	16
II.2 Fase de ejecución	16
II.3 Fase de terminación del expediente.....	16
III. OTRAS DEFICIENCIAS	17
III.1 Fase de tramitación del expediente.....	17
III.2 Fase de adjudicación.....	17
III.3 Fase de ejecución	18
III.4 Fase de terminación del expediente.....	19
III.5 Otras.....	19
IV. ANÁLISIS ESPECÍFICO DEL PLAZO DE EJECUCIÓN DE LAS OBRAS	20
V. RESUMEN DE DEFICIENCIAS	23
ALEGACIONES	25



I. SARRERA ETA LANAREN NORAINOKOA

1998ko martxoa - 1999ko martxoa bitarteko Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren urteko lan programak Vitoria-Gasteizko Udalean 50 milioi pezetatik gorako obren kontratazioari buruzko fiskalizazio-txostena egitea aurreikusi du. Lan hau Arabako Batzar Nagusiek hala eskatuta egin da.

Udalaren Kontratuen erregistrotik 1997an oniritzi eta 50 milioi pezetatik gorako lizitazio-zenbatekoa zuten obra kontratu guztiak bereizi dira. Kontratu hauek 1997 eta 1998an esleitu dira eta 1997, 1998 eta zenbait, baita 1999an ere egiteratu dira.

Hona hemen aipagai ditugun kontratuak eta esleipen zenbatekoak:

OBRAREN DESKRIBAPENA		Milioi pta.	
		ESLEIPEN	ZENBATEKOA
1	Arriagako Atearen urbanizazio lanak, Sto. Domingo Plaza eta Eulogio Serdán k/aren artean		53
2	San Prudentzio kaleko udal bulegoen erreforma eta zatiketa lanak	52	
3	Zurrupitieta kalea Jundizen amaitzeko lanak	88	
4	Jundiz kalea urbanizatzeko lanak amaitu (Jundizko Industri Poligonoa).....	153	
5	Heraclio Fournier kalean 3. adinekoentzako apartamentuak.....	584	
6	Gamarra Handia Toki Erakunde Txikian (TET) argindarra eta telefonoa kanalizatu eta urban.		82
7	Ospital Militarren etxadia urbanizatzeko lanak	40	
8	Errekatxiki ibaiaren bikoizketa lanak	163	
9	Judizmendiko Parkea zaharberritzeko lanak	73	
10	Gorbea kalearen konponketa lanak	92	
11	Amarita Toki Erakunde Txikia (TET) urbanizatzeko lanak	50	
12	Jundizko Poligonoan 11. zk.ko kalea eta azken errotonda urbanizatzeko lanak	67	
13	El Salvador Hilerrian 192 hilobi egiteko lanak.....	71	
14	Aldabe Gizarte Etxearen ingurua urbanizatzeko lanak.....	42	
15	Ramiro de Maeztu eta D.Beltrán kaleen erreforma, Lobaina Pza. eta Badaia kalearen artean		85
16	D. Beltrán kalearen erreforma, Badaia eta Basoa kaleen artean	72	
17	Arkaute Toki Erakunde Txikian (TET) argindarra eta telefonoa kanalizatu eta saneamendua	41	
18	Olarizuko larreko etxea zaharberritzeko lanak (2. fasea).....	80	
19	Sto.Tomas eta Errekaleor ibaien desbideraketa	89	
20	Iratxoaren Igarobidea zabaltzeko lanak.....	94	
GUZTIRA			2.071

Gure lana espediente guzti hauen azterketa egitea izan da, administrazio kontratazioaren legezketasunaren ikuspegitik eta horiei dagozkien kontularitzako erregistroen berrikusketa-lana zuzen eginak daudela egiaztatzearen.

Obren alorrean ezargarria den araubide juridikoa, oro har, Toki Erakundeen administrazio-kontratazioari ezargarria zaiena da, eta zehatzago:

– 13/1995 Legea, maiatzaren 18koa, Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzkoa (APKL), eta legearen garapenean ebatzitako Xedapenak.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 3410/1975 Dekretua, azaroaren 25ekoa, Estatuko Kontratazioaren Araudi Orokorra oniritzen duena (EKAO) eta hori Aldarazteko Xedapenak, beti ere APKLri aurkajartzen ez bazaizkio.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea eta 781/1986 Legegintzazko Erret Dekretua, Toki Araubidearen alorrean indarreko legezko xedapenen testu bateratua oniritzen duena.

Horren ondorioz, Txostenean eman ditugun ondorioak legezkontasuna betetzeari dagozkionak dira. Gerora, garrantzi txikiagoko hutsak deskribatzen dira.

Obren kontratuaren alderdi garrantzitsuetako bat egiterapen epea betetzeari dagokiona da. Kontratuetatik 13tan, birplanteaketa egiaztatzeko akta eta/edo obra-amaiera aktarik ez izatea oztopo dira, egiterapenaren epe formala betetzeari buruzko iritzia ematea eragozten duela. Horregatik, berriazko azterketa egin dugu obren gauzazko egiterapen epearen gainean.

Azterketa lana 1999ko apirilaren 8an amaitu da eta honenbestez, informazio guztia data horretara mugatua dago.



II. ONDORIOAK

Vitoria-Gasteizko udalak aztergai izan ditugun lanak indarreko araudiari jarraiki kontratatu ditu, esleipenean publizitate eta lehiaketa printzipioak gordez, ondotik azalduko ditugun salbuespenekin:

II.1 ESPEDIENTEA BIDERATZEKO FASEA

Guztira 932 milioi pezetan esleitu diren 11 kontratutan, ez da APKLren 129. artikulua agintzen duen proiektuaren aurretiazko birplanteaketa egin. Birplanteaketak obraren errealtate geometrikoa egiaztatzea eta obraren egiterapen normalerako beharrezko diren lursailen erabilgarritasuna besarkatzen ditu.

82 milioi pezetan esleitutako espediente batean, 116 milioi pezetako lizitazio-aurrekontua zuenean, ez da proiektuaren dokumentuen artean ageri Segurtasun eta Higienearen Azterketa egin denik, 555/1986 EDren 1. artikulua agintzen duena (84/1990 ED bidez aldatutakoa); dekretu honek agintzen du obra egiteratzeko proiektuan aipatutako Segurtasun eta Higieneari buruzko azterlana egitea ezinbesteko betekizuna izango dela dagokion Elkargo Profesionalak oniritzia emateko, udal lizentzia eskuratu eta hainbat Administrazio Publikoek bestelako baimen eta izapideak bideratzeko.

II.2 EGITERAPEN FASEA

San Prudentzio kaleko 30. zk.ko eraikinaren udal bulegoak zaharberritu eta zati-banatzeko espedientea 52 milioi pezetan esleitu zen eta horren gainean bi aldaketa oniritzi dira, guztira 21 milioi pezetakoak; honek %40ko aldaketa-ehunekoa egiten du. Gainera, beste enpresa batzuek kontratu honen xedearekin lotutako lan osagarriak egin dituzte, guztira 17 milioi pezetako zenbatekoan. Honek guztiak, likidazioagatik %4ko igoerari lotuz gero (neurketen igoeragatik), esleipen prezioaren gainean %76ko igoera eragin duela ikusten da, Udalak hasiera batean oniritzitako obra proiektuaren gutxiegitasuna erakusten duena.

II.3 ESPEDIENTEA AMAITZEKO ALDIA

Guztira 490 milioi pezetako zenbatekoarekin esleitutako 6 kontratutan, Udalak eskuratutako datuen arabera, obrak guztien erabilerarako emanak badaude ere, likidatzeko zain modura kalifikatzen dira, obra Amaitu delako aktarik ez dagoela. orobat, 362 milioi pezetan esleitutako 4 espedientetan, obra likidatua dago, dagokion Amaiera akta egin ez dela.

APKLren 111.2 artikulua agintzen duenaren arabera, kontratua bete dela egiaztatzeko Administrazioak amaierako edo adostasunezko ekintza formal eta positiboa eskatuko du, obra amaitu edo kontratuaren xedea bete eta hurrengo hilabetean zehar. Gogoan hartu behar da Legeak berak aurreikusten dituen epeak berme-epea edo behin-betiko likidazioa moduko alderdiei dagokienez, obra amaiera egiten denetik aurrera hasten direla kontatzen.



III. BESTELAKO HUTSAK

Orobat, egindako fiskalizazioaren ondorioz, bestelako huts arinagoak ere azaleratu dira:

III.1 ESPEDIENTEA BIDERATZEKO FASEA

Aztertu ditugun espedienteetatik batean ere ez da APKLren 128. artikulua aurreikusten duen proiektuak ikuskatzeko txostena gauzatu. Ikuskapen hori gauzatu izan balitz, beharrezkoa den segurtasun eta higienez gaineko azterketa eza ikusiko zatekeen.

Guztira 1.139 milioi pezeta egiten dituzten 9 espedientetan, proiektuaren birplanteaketa behin-betiko onartu aurretik egiten da. APKLren 129. artikulua agintzen du birplanteaketa proiektua oniritzi ondoren egin behar dela eta obra-espedientea bideratu aurretik. Honek ez du tramitazioan atzeraldi handirik zertan eraginik eta proiektua onartu aurretik birplanteaketa eginez gero, berriz, azken orduko aldaketak sortuz gero, birplanteaketa desitxura dezakete.

Guztira 523 milioi pezetako zenbatekoarekin esleitutako 7 espedientetan, premiazko tramitazioa arrazoi orokor eta aurreikusteko moduko araberan egiten da. Premiazko tramitazioak ez du ohiko prozedura ordezkatu behar eta honenbestez, salbuespen modura erabili behar da, izan ere, lehiaketaren publizitate epeak murriztea baitakar. Kasu adierazgarrien bezala, Amarita Toki Erakunde Txikiaren Urbanizazioari dagokion espedientea aipatu behar da, premiazko tramitazioko izendatu zena; bertan, eskabideak aurkezteko epeak, ALHAA-n publikatu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, ez du 13 eguneko epe gutxienekoa betetzen, APKLren 79. art. an aurreikusitakoa, Lege bereko 72.2 art. arekin lotuta.

III.2 ESLEIPENAREN FASEA

Lehiaketa bitartez esleitutako 17 kontratuetan, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguak “Baloraketa Teknikoa” izeneko irizpide baloratiboa barne hartzen du, besteak beste, honako alderdi hauek besarkatzen dituenak:

- obrari atxikituko zaizkion giza-baliabideak.
- titulazio akademikoak eta lanbide esperientzia.
- obrari atxikituko zaizkion baliabide teknikoak.
- Egin asmo den azpikontratazioa, honako ikuspuntu hauek abiaburu hartuta: lanen kategoria; kontratuen oinarri-arauak; eta gaudimen profesionala.

Ikus daitekeen moduan, nahiz eta zehaztu obrari atxikitako alderdi eta baliabideak direla, kontratari nagusiaren edo azpikontratariaren gaudimenari buruzko betekizunak daude, iada sailkapenaren bitartez egiaztatuak daudenak (APKLren 17. artikuluan aurreikusitako zainahi modutan) eta APKLren 87. artikulua adierazten dituen irizpide objektiboekiko alderik ez dutenak.

Nolanahi ere, irizpide hauek kontratariaren hautaketari aplikatzeak duen eragina aztertu dugu, irizpide subjektibo hauek ez erabili izanak esleipenaren emaitza aldatuko ote lukeen



jakitearren. D. Beltran kalean, Badaia eta Basoa kaleen bitarteko erreformari dagokion espedientean soilik aldatuko litzatekeela esleipen hartzailea egiaztatu dugu. Orobat, Jundizko Poligonoan 11. zk.ko kalearen eta azkeneko errotondaren urbanizazioari dagokion espedientean, proposatutako esleipen hartzaileaz gain puntuaketa bera lortuko zukeen beste enpresa bat egongo litzateke.

Arkauteko toki erakunde txikian Saneamendua egin eta argindarra eta telefona bideratzeko obren espedientean ez da ageri dagokion kontratua APKLren 55. artikuluari jarraiki gauzatu denik. Kontratua bi aldeen adostasunez gauzatzen bada ere, APKLk kontratuak formalki gauzatzeko obligazio orokorra ezartzen du eta horiek deusezteko gaitasuna ematen, baldin eta enpresari adjudikatariari ezargarriak zaizkion arrazoiengatik gauzatu ez balitz.

III.3 EGITERAPEN FASEA

Guztira 198 milioi pezetan esleitutako 3 espedientetan, ez da APKLren 142. artikulua aurreikusten duen birplanteaketa egiaztatzeko aktarik ageri. Gogoan izan behar da lursailaren gainean egiaztaketa fisikoa egiteaz gain, horren berri jasotzen duen aktak kontratua egiteratzeko epearen hasiera markatzen duela. Kasu hauetan, egintza honen egiaztagiririk ez dagoenez, ezin egiaztatu izan da kontratuaren epea bete den edo ez, edo, hala badagokio, atzeraldiaren zenbatespena.

Kontratuen aldaketei dagokienez, azalpen hauek egin behar ditugu:

- Aztertu ditugun kontratuetatik 5etan, guztira 367 milioi pezetako zenbatekoarekin esleitutakoak, kontratu-aldaketak oniritzi dira eta kasu bakar batean ere ez dira administrazio-agiri bidez gauzatu, APKLren 55. artikulua agintzen duenari jarraiki.
- Aldaketa hauetatik bitan, guztira 144 milioi pezetan esleitutakoak, espedientean ez da ageri prezio aurkatuen akta, APKLren 146.2 artikulua agintzen duen moduan.
- Azkenik esan, kasu hauetatik 3tan, guztira 225 milioi pezetan esleitutakoak, ez dela ageri behin-betiko bermea zuzendu izan denik aldaketan onartutako prezio-igoeraren ondorioz.

Aztertu ditugun espedienteetatik 14tan, ez dira ageri enpresari adjudikariak, aurkeztutako egiaztagiri eta likidazioei dagokienez, jaulki eta eman behar dituzten ordainagiriak; beste hirutan, berriz, ordainagiri batzuk baizik ez dira ageri. Obligazio hau izaera fiskaleko araudiak ezartzen du eta zehatzago, urtarrilaren 7ko 3/1986 Foru Dekretuak, enpresari eta profesionalek ordainagiriak egin eta emateko duten obligazioa arautzen duena.

III.4 ESPEDIENTEAREN AMAIERA FASEA

Sto. Domingo Plaza eta Eulogio Serdán k/aren artean Arriagako Atearen urbanizazio lanen eta Judizmendi Parkea zaharberritzeko lanen espedienteak guztira 126 milioi pezetan esleitu ziren. Bietan, obra oraindik likidatzeko dago, nahiz eta Udalak jaulkitako azken egiaztaririk, hurrenez hurren, 11 eta 9,5 hilabete igaro diren.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.5 BESTE BATZUK

Jundizko poligonoan Zurrupitieta kalearen urbanizazioa amaitzeko lanei dagokien espedientean, 88 milioi pezetako esleipen aurrekontua duena, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza alorreko Zinegotzi-Ordezkariak luzapen bat oniritzi zuen, bere eskumena, kontratazioaren alorrean, gehienera 5 milioi pezetara mugatzen delarik. Berebat, Gamarra Handiko TET argindar eta telefono kanalizazioak eta urbanizazioa egiteko lanen espedientean, 82 milioi pezetakoa, eta Ospitale Militarren etxadia urbanizatzekoan, 40 milioi pezetako esleipen aurrekontua duena, egiaztagiriak eta likidazioa Zinegotzi-Ordezkariak onartu ditu, bere eskumena aurreko kasuan bezala, mugatua dagoelarik.

Aztertu ditugun espedienteetatik 14tan, 1.456 milioi pezetan esleitu zirenak, guztira 424 milioi pezeta egiten dituzten kredituak txertatu zaizkio 1999ko urtealdiko aurrekontuari, iada 1998ko urtealdiaren aurrekontuari txertatu zitzaizkionak. Arabako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuzko 9/1991 Foru Arauak 32.4 artikulua bidez agintzen du txertatutako kredituak txertaketa gauzatzen den urtealdian egin behar direla, nola eta ez diren sarrera helburudun bitartez finantzatutako kapital eragiketak, eta ez da hau kasua.

Jundizko Poligonoa urbanizatzeko obrei dagozkien sarrera eta gastuak ez dira urtealdiko aurrekontuaren likidazioan ageri, baizik eta aurrekontuz kanpo erregistratzen dira, izan ere, Gasteizko Industrial Lurrak, SA (GILSA) finantzatzen baititu. Bere finantzaketaren berezitasuna kaltetu gabe, egokiagoa da sarrera eta gastuak aurrekontuan jasotzea.



IV. OBRAK EGITERATZEKO EPEAREN GAINEKO AZTERKETA BERARIAZKOA

Epeen ondorioetarako, kontratuaren egiterapena birplanteaketa egiaztatzeko aktarekin hasten da eta amaiera aktarekin bukatzen. Honako epe hau da adjudikatariaren eskaintzan adierazitako dataekin alderatuz gero, esleipenaren baldintzak bete diren adierazten diguna, eta kasua balitz, kontratuaren egiterapenean izandako atzerapena.

10 espedientetan amaiera aktarik ez zegoela ikusi dugu, nahiz eta batera gertatutako hainbat baldintzek iada egina behar zukeela izan pentsarazten duten (1, 3, 4, 8, 9, 10, 11, 12, 13 eta 14. esped.).

Birplanteaketa egiaztatzeko akta 3 espedientetan falta da (15, 16 eta 17. esped.).

Hitz labur, esan dezakegu 13 espedientetan ezin egiazta daitekeela kontratuan aurreikusitako egiterapenerako egiazko epea. Hala eta guztiz ere, obrak materialki gauzatu direneko epeak egiaztatzea interesgarri dela iritzita, aurreikusitako epeekin alderatuz, zenbaitetan, neurketa egiteko ordezeko elementuak erabili ditugu, formalki arautu gabeko epeez baliatuz, espedienteko beste agiri batzuetatik eta gure behaketatik obren hasiera eta amaiera datak aterezaz, horiek zehazgabeak izateko arriskuak arrisku.

Azterketa guzti honetatik zera azaleratu nahi dugu:

Bi obretan (3. eta 4. esped.), hurrenez hurren 1999/2/25 eta 1999/2/24ko likidazio-datak dituztenak, udalak berak hiru hilabetetik gorako atzeraldiak izan direla egiaztatu du eta bi kasuetan 2,4 eta 2,5 milioi pezetako zigorrak ezarri dizkie.

Udalaren arabera likidatzeko dauden 3 obretan (9, 10 eta 14. esped.) ez dago amaiera aktarik; berebat, ez dago zertifikatua obraren esleipen-kopuru guztia. Honegatik guztiagatik, eta arazoa amaiera akta edo obra bera zen argitzearren, obraren egoeraren gaineko egiaztaketa materiala egin dugu. Egiaztaketa horren emaitza izan da obra, iada, erabilera publikora emana dagoela, gauzatzeko gera daitezkeen hainbat alderdi tekniko alde batera utzita. Nolanahi ere, obrak amaitzeko epe teorikoa eta jaulkitako azken zertifikazioaren data aztertu ondoren, esan daiteke atzerapenak izan direla, amaiera aktarik ez izateak zehaztasunez zenbatestea eragozten duen arren. Hauek honela, dokumentuak aztertuta obren egintza materialari dagokionez ondorentzen da Gorbea kaleko obran, 5 hilabeteko aurreikusitako epearen gainean 2 hilabeteko atzeraldia izan dela eta Aldabe Gizarte Etxearen inguruko obretan, gutxieneko atzeraldia aurreikusitako 4,5 hilabeteren gainean hilabete batekoa izan dela.

1, 8, 11 eta 13. kontratuak aztertuta ikusi dugu, kontratua egiteratzeko epe formalari buruzko iritzirik ematerik ez badugu ere, datuen arabera obren egiterapen materiala aurreikusitako epean egin dela.

Jundizko poligonoan 11. zk.ko kalea eta azken errotonda urbanizatzeko espedientean (12), amaiera data teorikoa 1998/6/27an zuena, amaiera-agiria egiteko eskatzen duen 1998/7/23ko kontratariaren idatzia dago, lorazaintzako obrak egiteke utziz, urteko sasoi egokiagora arte atzeratzeko proposatzen duela. Udalak ez du eskaria onartu eta 15 egun eman ditu obrak amaitzeko, bestelako ekintzaren berririk ez dagoela.



Egiterapenean dauden 3 espedientetan (15, 16 eta 17), espedientean ez da birplanteaketa egiaztatzeko aktarik ageri. Alternatiba modura, egiterapen epearen hasiera izan zitekeen data modura APKLk agintzen duena hartu dugu, hau da, kontratua izenpetzen denetik aurrera hilabete eta hala izanda, bi kasutan 7 hilabetetik gorako atzerapen teorikoak izan direla egiaztatu dugu (15 eta 16 esped.). Honez gain, obren egiterapen materialari dagokionez, Ramiro de Maeztu kalekoak 6 hilabetetarako aurreikusitako obraren gainean, 2 hilabeteko atzerapena izan du eta Domingo Beltran kalekoak (Badaia eta Basoa bitartean) aurreikusitako 3,5 hilabeteko epearen gainean, 4 hilabeteko atzerapena izan du. Hirugarren kasuan, Arkauteko Toki Erakunde Txikian Saneamenduari eta argindar eta telefono bideraketari dagokiona (17. esped.), espedientean gauzatutako kontraturik ere ez egoteak, aurreko bi kontratuentzat egin dugun kalkulu teorikoa egitea eragozten du.

Udalak eskuratu dizkigun datuen arabera egiteratzen ari diren 4 espedientetan (6, 18, 19 eta 20. esped.), datu hori amaiera-data teorikoarekin eta azken zertifikazioaren datarekin alderatuz gero, ondorendu dezakegu egiterapen epearekiko atzeraldi ezberdinak izan dituztela. Olarizuko larreko etxea zaharberritzeko lanei (18), Sto. Tomas eta Errekaleor ibaiak desbideratzeko lanei (19) eta Iratxoaren Igarobidea zabaltzeko lanei (20) dagokienez, 1999/4/8an egiaztatu ahal izan dugu 6 hilabeteko atzeraldiak izan direla lehenengo bi kasuetan eta 5 hilabetekoa hirugarrenean, hurrenez hurren, 6, 4 eta 5 hilabeteko aurreikusitako epeen gainean; hauetan egoera are larriagoa da, izan ere, obrak oraindik amaitzeke baitaude eta honenbestez, azkenean atzeraldia hemen jasotakoa baino handiagoa izango baita.

Berebat, komeni da aipatzea APKLk 96. artikuluan kontratariari dagokionez, epea betetzeko obligazio orokorra ezartzen duela eta baita, hori bete ezean eragingo dituen ondorioak. Udal teknikariei galdegin zaie kontratuen egiterapenean sortzen diren atzeraldiak direla eta, zein neurri hartzen diren eta esan digute likidazioa egiten denean kalkulatzeko direla atzerapenak eta dagozkin zigorrak ezartzen. Eta halaxe egiaztatu dugu egindako lanean, izan ere, Jundizko poligonoan Zurrupitieta eta Jundiz kaleetako urbanizazioei dagozkien lanetan, obrak dagozkien zigorrak ezarriz likidatu dira.

Zigorrak ezartzeari dagokionez, honako hau gomenda dezakegu:

1) Kontratua likidatu aurretik ezarri eta kontratuaren prezioaren %20 egiten badu, kontratua bertan behera uztea edo beste zigor batzuk ezartzea birplanteatu (APKLren 96.4 art.).

2) APKLn epe partzialak eta zigorrak barne hartu betetzen ez diren kasuetarako, funtzio zigortzaileaz gain, funtzio prebentiboa ere izan dezaten (APKLren 96.5 art.).

Honenbestez, 5. zk.ko espediente alde batera, oraindik epea iraungi gabe baitu, hona hemen gainerako 19etan egindako azterlanaren emaitza laburtua:

1. 7 espedientetan ez da obren egiterapen materialean atzerapenik izan (1,2,7,8,11,13 eta 17).


2. Bi espedientetan (3 y 4), Udalak atzerapena egiaztatu du eta zigor ekonomikoak ezarri dira.



3. Likidaziorik gabeko 5 espedientetan, atzerapena izan dela egiaztatu dugu aurreikusitako egiterapen epearen eta obrak gauzatu direneko epearen artean, ondoko grafikoan ikus daitekeen legez:

EGITERAPEN EPEAK


Hilabeteak



4. 1999/4/8an amaitu gabe dauden beste 5 espedientetan, aurreikusitako egiterapen epearekiko obraren egiterapen materialean atzerapena izan dela egiaztatu dugu, nahiz eta atzeraldia aipatutakoa baino handiagoa izan daitekeen obrak amaitzen direnerako:

EGITERAPEN EPEAK

Hilabeteak





V. HUTSEN LABURPENA

OBRA	ESLEITUT.		HUTSAK				
	PROZEDURA	ZENBAT.	A	B	C	D	E
1. Arriagako Atearen urbanizazio lanak, Sto. Domingo eta Eulogio Serdán kaleen artean	LEHIAKETA	53	A1,2,3		C1,2,5	D2,4,5	E1
2. S.Prudentzioko udal bulegoen erref./zatiketa	LEHIAKETA	52	A1,2,3,5		C1,5,6,7	D3	
3. Zurrupitieta kalea Jundizen amaitzeko lanak	LEHIAKETA	88	A1,2,3,5		C1	D4	E2
4. Jundiz k. urbaniz. lanak amaitu (Jundizko I.P.)	LEHIAKETA	153	A1,2,3,5			C1	D4
5. 3. adinekoentzako apart.Heraclio Fournier k.	LEHIAKETA	584	A1,3,4	B1	C2,4	D2	E1
6. Gamarra Handian argind. telef. kanaliz./urban.	ENKANTEA	82	A1,3,4,6	B2	C1,4	D2	E1
7. Ospital Militararren etxadia urbanizatz. lanak	LEHIAKETA	40	A1,2,3	B1	C1	D2	E1
8. Errekatxiki ibaiaren bikoizketa lanak	LEHIAKETA	163	A1,2,3	B1	C1	D3,4	
9. Judizmendiko parkea zaharberritzeko lanak	LEHIAKETA	73	A1,2,3	B1	C1,3	D3,4,5	E1
10. Gorbea kalearen konponketa lanak	LEHIAKETA	92	A1,2,3		C1,5,6,7	D2,4	
11. Amarita T.E.T. urbanizatzeko lanak	ENKANTEA	50	A1,3,4,5	B3	C1	D2,4	E1
12. Jundizen 11. zk. kalea eta azken errot.urban.	LEHIAKETA	67	A1,2,3,5	B2	C1	D2,4	E2
13. El Salvador hilerrian 192 hilobi egiteko lanak							
193. lursailan	LEHIAKETA	71	A1,2,3,5	B2		D2,4	E1
14. Aldabe Giz. Etxearen ingurua urbaniz. lanak .	LEHIAKETA	42	A1,3,4,5	B2	C1	D2,4	E1
15. Ramiro de Maeztu eta D. Beltrán kaleen erref. Lobaina Pza. eta Badaia kalearen artean	LEHIAKETA	85	A1,3,4	B1	C1	D1,2	E1
16. D. Beltrán kalearen erreforma, Badaia eta Basoa kaleen artean	LEHIAKETA	72	A1,3,4	B1	C1	D1,2	E1
17. Arkaute TETan arg. eta telef. kanal. eta sane.	ENKANTEA	41	A1,2,3	B2	C1,8,9	D1,2	E1
18. Olarizuko larreko etxea zaharber. lanak (2. fasea)	LEHIAKETA	80	A1,2,3	B1	C1,5,7		E1
19. Sto.Tomas eta Errekaleor ibaien desbideraketa	LEHIAKETA	89	A1,3,4	B2	C5	D2	E1
20. Iratxoaren Igarobidea zabaltzeko lanak	LEHIAKETA	94	A1,3,4	B1	C1	D2	E1

ESPEDIENTEA	Milioi pezeta
A1 Proiektua eta espedientea aldi berean oniritzea	2.071
A2 Ez dago Aurretiazko birplanteaketa aktarik	932
A3 Ez dago proiektua gainbegiratzeko duen txostenik	2.071
A4 Aurretiazko birplanteaketa akta proiektua oniritzi aurretikoa	1.139
A5 Premiazko tramitazioa, behar bezala arrazoitu gabea	523
A6 Lanean ez dago Segurtasun eta Higieneari buruzko plangintzarik	82

ESLEIPENA	
B1 Esleipenean 30 egun natural ematen dira fidantza aurkezteko, (15 lanegun dira)	1.191
B2 Esleipenean 15 egun natural ematen dira fidantza aurkezteko.	391
B3 Argitaratzeko epea legezkoa baino txikiagoa	50

GAUZATZEA	
C1 Ez dago izenpetutako plegurik	1.327
C2 Hilabete baino gehiago igaro da kontratua izenpetu zenetik birplanteaketa egiaztatzeko agirira arte	637



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C3 Hilabete baino gehiago igaro da esleipena jakinarazten denetik kontratua izenpetu arte	78
C4 Kontratua fidantza ezarri baino lehenago izenpetu da	666
C5 Aldaketaren kontratua falta da	367
C6 Ez dago Aurkajarritako prezioen aktarik	144
C7 Ez dago fidantzaren zuzenketarik (aldaketak)	225
C8 Kontratua falta da	41
C9 Fidantza obra hasi eta gero aurkeztu da	41
EGITERAPENA	
D1 Birplanteaketa egiaztatzeko akta falta da	198
D2 Ez dago ordainagiririk	1.461
D3 Ordainagiriren bat falta da	289
D4 Amaiera-akta falta da	852
D5 Obraren likidazioa falta da	126
KONTUETARAKETA	
E1 1999ko urtealdian txertatutako kredituak (454 milioi pezeta), iada 98koan txertatu zirenak.	1.456
E2 Aurrekontuz kanpoko erregistroa	308



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. INTRODUCCIÓN Y ALCANCE DEL TRABAJO

El programa anual de trabajo del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas para el período marzo-1998 marzo-1999, incluye la realización de un Informe de fiscalización sobre la contratación de obras superiores a 50 millones de pesetas en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Este trabajo se ha realizado a petición de las Juntas Generales de Alava.

Del Registro de contratos del Ayuntamiento, se han segregado todos los contratos de obras, que se aprobaron en 1997 y su importe de licitación era superior a 50 millones de pesetas. Estos contratos han sido adjudicados en 1997 y 1998, y se han ejecutado durante 1997, 1998 e incluso alguno de ellos durante 1999.

Los contratos referidos y su importe de adjudicación son los siguientes:

		Millones-ptas.
		IMPORTE
DESCRIPCIÓN DE LA OBRA		ADJUDICACIÓN
1	Urbanización Portal de Arriaga entre Pza. Sto. Domingo y C/ Eulogio Serdán.....	53
2	Reforma y compartimentación de las oficinas municipales C/ San Prudencio.....	52
3	Terminación C/ Zurrupitieta en Jundiz.....	88
4	Terminación urbanización C/ Jundiz (Polígono Industrial Jundiz)	153
5	Apartamentos 3ª edad C/ Heraclio Fournier	584
6	Canalización electricidad y teléfono, y urb. en la Entidad Local Menor (ELM) Gamarra Mayor	82
7	Urbanización de la manzana Hospital Militar	40
8	Desdoblamiento río Errekatziki	163
9	Remodelación parque de Judizmendi.....	73
10	Reparación de la C/ Gorbea	92
11	Urbanización en la Entidad Local Menor (ELM) de Amarita.....	50
12	Urbanización calle nº11 y rotonda final en Polígono de Jundiz.....	67
13	Construcción de 192 panteones parcela Cementerio El Salvador	71
14	Urbanización del entorno del Centro Cívico Aldave.....	42
15	Reforma C/ Ramiro de Maeztu y D.Beltrán entre Pza. Lovaina y C/ Badaya	85
16	Reforma C/ D. Beltrán entre C/ Badaya y Basoa	72
17	Saneamiento can.elec.y telef.en la Entidad Local Menor (ELM) de Arcaute	41
18	Rehabilitación casa de la dehesa de Olárizu (2ª fase)	80
19	Derivación de los ríos Sto.Tomás y Errekaleor.....	89
20	Ampliación Paso del Duende.....	94
TOTAL		2.071

El trabajo ha consistido en el análisis de todos estos expedientes, desde la perspectiva de la legalidad de la contratación administrativa, así como la revisión de sus correspondientes registros contables para verificar su corrección.

El régimen jurídico aplicable en materia de obras es, en general, el aplicable a la contratación administrativa de los Entes Locales y en concreto:

- Ley 13/1995, de 18 de mayo de Contratos de las Administraciones Públicas (LCAP), y Disposiciones dictadas en desarrollo de la ley.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- El Decreto 3410/1975, de 25 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento General de Contratación del Estado (RGCE), y Disposiciones Modificativas del mismo, en lo que no se opongan a la LCAP.
- Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local, y Real Decreto Legislativo 781/1986 por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local.

Consecuentemente, en el Informe se presentan como conclusiones las relativas al cumplimiento de la legalidad. Posteriormente, se describen deficiencias menos significativas.

Uno de los aspectos importantes del contrato de obras es el cumplimiento del plazo de ejecución. En 13 de los contratos la ausencia de acta de comprobación del replanteo y/o del acta de recepción constituyen una limitación, impidiendo concluir sobre el cumplimiento del plazo formal de ejecución. Por ello, se presenta un análisis específico sobre el plazo de realización material de las obras.

El trabajo de campo ha finalizado el 8 de abril de 1999 por lo que toda la información está referida a dicha fecha.



II. CONCLUSIONES

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, ha realizado la contratación de las obras revisadas de acuerdo a la normativa vigente respetando los principios de publicidad y concurrencia en la adjudicación, con las siguientes excepciones:

II.1 FASE DE TRAMITACIÓN DEL EXPEDIENTE

En 11 contratos adjudicados por un importe total 932 millones de pesetas no se ha realizado el replanteo previo del proyecto exigido en el art. 129 de la LCAP. El replanteo comprende la comprobación de la realidad geométrica de la obra y la disponibilidad de los terrenos precisos para la normal ejecución de la misma.

En un expediente, adjudicado en 82 millones de pesetas, que tenía un presupuesto de licitación de 116 millones de pesetas, no consta entre los documentos del proyecto la existencia del Estudio de Seguridad e Higiene exigido por el artículo 1 del RD 555/1986 (modificado por el RD 84/1990), que establece que la inclusión en el proyecto de ejecución de obra del citado estudio de Seguridad e Higiene será requisito necesario para el visado de aquél por el Colegio Profesional correspondiente, expedición de la licencia municipal y demás autorizaciones y trámites por parte de las distintas Administraciones Públicas.

II.2 FASE DE EJECUCIÓN

